



**TXIKIPOLIT
JATETXEA**

Musika plaza.
20800 Zarautz
Tel: 943 83 53 57
e-posta: info@txikipolit.com
web orria: www.txikipolit.com



Bero-beroan _____ ONINTZA IRURETA

Topagunearen jardunaldiak eta erakusketa

TOPAGUNEA Euskara Elkartearen federazioa sortu zela hamar urte dira aurtun eta aitzakia horrekin *E2i: Euskara Elkarteak Ibilian* jardunaldiak antolatu ditu Donostiako Miramon Teknologia Parkean azaroaren 23an. Egun horretatik aurrera herriz herri ibiliko da erakusketa, euskara elkartearen oraingo dimentsioa azaldu nahian.

“Hitza” egunkariak berrituta edukiz eta itxuraz

SAREAN diren zazpi *Hitzak* diseinuz berritu dituzte eta baita paperekoak ere. Papereko edukiak lantzeko modua ere aldatuko dute, sareko informazioarekin osagarri eginez.

Literatur kritikak armiarman

SUSA ARGITALETXEAREN webgunean ziren orain arte literatur kritikak. Orain ere hor segitzen dute, baina edukia eskaintzeko modua aldatu eta armiarma proiektuan (www.armiarma.com) jarri dituzte ia 4.000 kritika.

BAHEA

www.gipuzkoacuskara.net-en Iñaki Arruti Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikariak esanak: “Nik dauzkadan datuen arabera behintzat, Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatu berri dituen 10 diputatuen artean ez da elebakarrik, denak dira elebidunak (bat elebidun pasiboa), eta izendatuta dauden 25 zuzendarien artean ere ez da elebakarrik (bat da horien artean ere elebidun pasiboa). Uste dut Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua euskaraz egiten ari direla lehen aldiz (historian?)”.

Kutsadura industrialia eta minbizia

Pertsona guztiek ez dute minbizia izateko arrisku berdina. Faktore genetikoek, aurrekari familiarrek eta ohitura osasungarri zein kaltegarriak duten eraginaz gain, bizilekuak ere uste baino gehiago eragiten du tumoreen agerpenean. Hala dio Espainiako Estatuko Osasun Ministerioaren aginduz egindako *Atlas municipal de mortalidad por cáncer en España* lanak. Ikerketa honek Cádiz, Huelva, Katalunia eta Hego Euskal Herrian izandako kasuen hazkundea erakutsi du. Gehikuntzok “kutsadura industrialarengatik baino ezin litezke azaldu”. Leku horietan biriketako, laringeko edo ehun konjuntiboetako minbizia izateko aukera Espainiako erdigunean baino hiru aldiz handiagoa da. Hego Euskal Herrian, amiantoaren ondorioz gaixotzen direnen kasuak gora doaz eta baita hildakoak ere. Pankreako minbizien zerrendan ere buruan dago Hego Euskal Herria. Hori, lanean disolbatzaile organiko, nikel konposatu, pestizida edo hidrokarburoak bezalako kutsagarriekin harremanetan egoteagatik gerta daiteke. Ezin dugu ahaztu lindane gordailuak ere estalperik gabe izan ditugula hainbat hamarkadatan eta norbaitek ordaintzen dituela gauza horiek, batzuetan hogeitun urte geroago bada ere. Kutsadura industrialia guztiok ordaintzen dugu. Lezorik? Bat nagusi: erabaki irmoak hartu behar dira ingurumen eta hondakinen kudeaketan. Gainera, hautemate eta prebentzio politika garatu behar da.

Juan Mari Arregi

Elkarrizketa irtenbideak oztopatzea helburu

IBARRETXE LEHENDAKARIA

ahozko epaiketarantz doa jada. Berdintsu da une batzuetan bultzada politikoa gobernutik etorri edo epaileetatik, Batasuna legez kanpo jartzeko berau babestuko lukeen legedirik ez balego, dena delako bultzadek ez lukete inongo indarrak eta.

Bitxia da ikustea nola berez aurrerakoa den kontzeptu juridikoa, hau da herri akusazioarena, erabilera atzerakoiaren ispilu den: bi talde txikik –Dignidad y Justicia eta Foro de Ermua– judikatutarak halako auzi bat aurrera eramatea ahalbidetzen dute, euskal gizartearen ehuneko oso handi bat aurka egon arren; elkarrizketa kriminalizatzen da; eta, besteak beste, auziaren erabilera politiko gordine-nari bide ematen zaio.

Aipatu izan da akaso mugaren bat ere jarri beharko litzaiokeela herri ekimen honi, edonork edozer lortu ez dezan, baina kasu honi begira, Alderdien Legea ezabatzea edo aldatzea nahikoa litzateke herri ekimena indargabetzeko.

Larria da Ibarretxek eta berak ordezkatzeko duenarekin halako joko juridiko-politikoa egin ahal izatea, baina larriagoa da hori bera Batasunarekin biltzeagatik gertatzea. Epe motzari begiratuta, larria izan daiteke ahozko epaiketa eta Ibarretxeren galdeketa planaren *tempus*-ekin egin daitekeen erabilera. Larriagoak dira epe ertainera gatazka gainditzeko ahaleginen kudeaketari jartzeko zaizkion muga gogorrak.

Modu publikoan eta pribatuan, dozenaka dira Batasunarekin biltzen diren gizarte eragileak, hasi alderdi politikoetatik eta komunikabideetaraino –tartean ARGIAkook– eta ikusi beharko da aurrera begira



epaiketa honek zer emaitza duen harreman sare hori guztiarekiko. Zeren eta –aditu gehienak hala iradokitzen ari dira– gauza bat da epaiketa honetatik zigor juridikorik ez ateratzea, ez lehendakariarentzat ez beste auziperatuentzat, eta bestea da Batasunarekin elkarrizketatzearren jarduera sozio-politikoa zertan uzten duen. Hau da, Roberto Saiz epaileak desobediencia akusazioa izugarri kiribildu ei du ahozko epaiketara iristeko, eta, beraz, oso zaila da frogatzea lehendakariak eta PSOEko buruzagiek desobeditu dutenik, horretarako agindu zuzenik ez zutenean. Egia, baina planteamendu honek zeharka airean uzten du beste honako hau: desobeditu ez denez ezin da zigortu, baina Batasunarekin bilerarik –edo harremanik– ez izateko agindurik balego, horrek zigorra mereziko luke.

Pedro Ugarte idazleak *El País*en auzi honi buruz ari zela auzia gogor kritikatzeko Saiz epailearen jokaldia, baina “Desagertutako Batasuna”-ri buruz (“La extinta Batasuna”) egiten zuen berba artikuluan. Ugartek seguruenik ñabar-dura ugari egingo litzeki esapide horri, jakin bai baitaki ez dela egia; hala ere, Alderdiaren Legearen

ondoren, halakoak gero eta lasaiago idatz daitezke.

Juan Cruz Alli CDNko buruzagiak pragmatikoago hitz egiten zuen Jose Luis Rodríguez Zapatero eta ETArekin elkarrizketa saioaz iragan igandean *Diario de Noticias*-en egindako elkarrizketan: “Beste prozesu bat ere izango da, Gobernu guztiek, iraganen ere egon baitira prozesu ugari, eta arazoak

irauten duen bitartean Espainiako Gobernu guztiek izango dutelako berau bideratzeko ardura”.

ZOE-REN ONTZIAREN auzia Sudan, Txad, Frantzia eta Nazio Batuen Erakundearen harreman sare korapilatsuan harrapatua geratu da. Berez da gaitza gerra egoeran bizi diren hauren etorkizunaren amarauneari sartzeko eta errealitate gordin ugari dira hor: pederasta sareak, legez kanpoko adopzioak, europarron karitate ikuspegia... Nahi dena, baina eztabaida horiek guztiak kontuan hartu beharrekoak izanik ere, ekin-tzaren bidez ehunka haur gerraz salbu jarri eta mendebaldeko gobernuen kontzientzia astindu nahi zuten asmoarekin egiten dute topo. Auziak beharko du dagokion ikerketa, baina nire begietatik ikusita, Zoeren Ontzi-koek bi gauza dituzte euren alde: bat, operazio guztia iragarria zuten bai publikoki –ARGIA iragan uztailaren 29ko zenbakian agertu zen– eta baita hainbat instituzio eta gobernuen aurrean ere, tartean Frantziakoa eta Txadakoa; eta bi, ziria edonori sar dakiokela onartuta ere, operazioan sartuta dauden Iparraldeko herritarrak konfiantzazko pertsonak dira bertako euskalgintza ezagutzen duen edonorentzat.